

bizitzeko tokiak, pertsonentzako tokiak.



Gehiago jakiteko

Natura guneen sareen proiektu honekin jendearen eta naturaren arteko lotura lortu nahi da, bientzat onuragarri izango den elkartasun-konpromisoa.



natura
2000



Natura 2000 Sarea pertsonen eta naturaren arteko elkarlana da.

Oraindik ere ohikoa da "naturaren babes" terminoa natura-erreserba zorrotzekin lotzea non pertsonen ekintzak sistematikoki galarazita dauden. Hala ere, Natura 2000 Sareak lan egiten duen modua guztiz ezberdina da. Ez du basa-bizitzarentzat santutegirik sortu nahi onartzen baitu gizakia naturaren zati garrantzitsua dela.

Izan ere, espezie batzuen biziraupenerako garrantzitsuak eta beharrezkoak diren habitaten artean, badira pertsonaren ekintza ezinbestekoa duten lekuak; pertsonen ekintzak dira, hain zuzen, espezie horiek bizitzeko behar dituzten baldintzak sortzen dituztenak. Ekintza asko eta asko ordea, dagoeneko ez dira errentagarriak han bizi direnentzat. Hori dela eta, Natura 2000 basa-bizitza babesten saiatzeaz gain pertsonen bizitza kalitatea hobetzen eta bereziki biodibertsitateerako onuragarriak diren ekintza tradizionalak bermatzen ere saiatzen da. Horrexegatik Natura 2000ko tokiek lehentasuna izango dute zaintzarako eta garapen jasangarriko diru-laguntzak lortzeko orduan.

Ondorioz, leku batzuetan pertsonen ekintzak mugatuta egongo diren arren espezie eta habitat arraro edo oso eskasen presentziagatik, Natura 2000ko toki gehienetan pertsonen euren jarduna burutu ahal izango dute, betiere bertan dauden espezie eta habitat naturalak ez kaltetzeko ardurarekin. Espezie edo habitat desberdinetan nabarmen nabarmen eragin dezakeen edozein proiektu edo ekintza ebaluatu beharko da kaltegarriak izan ote daitezkeen jakiteko eta, kasuan kasu, konponbidea bilatu, kaltea sortu baino lehen.

Horrela bada, Natura 2000k garapen jasangarria bermatzen du. Bere helburua ez da ekintza ekonomikoak etetea, baizik eta euskal eta europar biodibertsitatearen babestuz jarduera ekonomikoak garatzeko bideak irekitzea. Helburu hori lortzeko behar-beharrezkoa da Natura 2000 Sarean bizi eta lan egiten dutenek erabakietan parte hartzea. Jabeek, udaletxeek, enpresariak, naturaren babeserako elkarteak, bertako komunitateak eta, gure natura ondareaz eta gure biodibertsitateaz kezka duen edonork zeregin handia dute eraikitzeaz dagoen lan-talde honetan, Natura 2000 Sarean.

Kasu interesgarria: terreña behia mendira bueltan

Bada mende bat, Araba osoan terreña behia nagusi zela. Duela hogei urte, ehun bat ale baino ez ziren. Adolfo Martínez de Santos-ek kanpokoak bezain emankorra ez den behi-espezie baten alde egin du, baina bere ingurunearekin etengabeko orekan egoteko bizimodua egiteko aukera eskaintzen dio. Gorbeialdeko larre berdeetatik eta Gaubeako zereal marroiaren artetik dabil berriro ere terreña behia, arraza gogorra, artzaintza estentsiboari esker mantendu diren euskal zelaien baldintza ekologikoetara moldatu dena.

Adolfok beregan sinesten du. 80. hamarkadaren bukaeran espezie hau berreskuratzen hasi zenean, geratzen ziren 150 bat aleek ez zuten ia antzinako arraza estandarrik. Baina Adolfo bezalako abeltzainen ahaleginari esker, gaur egun terreña behiak aurrera egin dezake, eta ez bere errentagarritasunari esker. Arraza honen aldeko apustua, bizitza filosofia baten aldeko apustua da egiazki. Jasotzen dituen laguntzak ez dira nahikoa beste arraza emankorragoek duten errentagarritasunaren parera iristeko; beste arraza horiek, ordea, ez dira aproposak euskal larreen aberastasun biologikoari eusteko behar den abeltzaintza estentsiborako. Terreña behia genetikoki oso ondo moldatuta dago zonalde honetara, non oso azkar pasatzen den egoera batetik bestera; bi hilabete elur azpian, eta berehala, hego-haizea eta bero ikaragarria, dena kiskalita utziz. Animalia ziklo naturala errespetatuz, kalitatezko haragi zapoetsua lortzen da, besteetatik ezberdina, enkarguz saltzen duena. Haragia hornitzeko eskaintzak izan ditu, baina bere ustiapenean neurriak ezartzea erabaki zuen soldata bat izateko, animalia horiek egon behar duten lekuan errespetuz egon daitezen eta haragiaren kalitatea kontrolatzeko gai izan dadin. Adolfok Natura 2000n egiten du lan. Badirudi bere bi semeei lanbidea gustatzen zaiela. Berri ona, erreleborik izan ezean ilusioa galtzen baita. Etorkizuna bermatuago legoke erakundeek Adolfo eta beste abeltzain batzuk beren terreña behiak arabar larreetara eramaten jarraitu ahal izateko lan egingo balute.

"La vaca terreña se vuelve a echar al monte" artikulua. zatia. Joseba Vivanco. GARA (2009ko martxoak 22)

Europa mailako talde-proiektua

Natura 2000 ez da komunitateko autoritateen ezarpena, europar hiritarren erabakia baizik. Onartu dugun talde-erronka da eta gure eta gure ondorengoen ongizatea jokatzeko dugu bertan.

Euskal gizartea ez dago bakarrik egitasmo honetan. Europar Batasuneko hogeita zazpi herrialdeetako jende askok dihardu lanean Natura 2000 errealitate bihur dadin.

Nekazariak, abeltzainak, basolangileak, enpresari turistikoak, eta mota guztietako eragile ekonomikoak dagoeneko lanean ari dira, agintari eta ordezkari sozialekin batera, norberaren eta guztion alde, Europar Batasun osoan zehar, biodibertsitatearen babeserako proiektuetan inplikaturik eta gure biodibertsitatearekin bateragarriak diren lan egiteko moduak erabiliz.

